



# elika

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunerako  
Euskal Fundazioa



# RASFF TXOSTENA

## ELIKAGAIAK

## ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

**2023ko LEHENENGO LAUHILEKOA**


### JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2022ko lehenengo lauhilekoan elikagaiei buruzko 1286 jakinarazpen izan dira. Horietatik 349 alertak izan dira (%27), 502 informazio-jakinazpenak (%39) eta 435 mugan egin diren ukapenak (%34).



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **26,5a Turkiakoak** dira eta %**21ak Indiakoak**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdeak **Frantzia % 15**arekin eta **Polonia %12**arekin izan dira. **Afrikaren** kasuan, **Egipto %29**arekin eta azkenik, **Amerikaren** kasuan **EEBB** dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak, %**34**arekin.

### KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2023ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1286 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Kutsadura biologikoa	% 24
Hondakinak	% 21,5
Iruzurrak	% 20,5
Mikotoxinak/biotoxinak/toxina naturalak	% 12
Kutsadura kimikoa	% 9,5
Kutsadura fisikoa	% 4,5
Metal astunak	% 4
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 4



## **KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK**

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 65,5ean, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % 39a eragin du. Kasu gehienetan (% 26a) kakahuetea **EEBB**etatik zetorren.

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %60a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 78an. **SESAMOA** izan da produktu protagonista %30eko kasuetan, %64ko kasuetan **NIGERIA** jatorria zelarik.

Beste salmonelei dagokienez, %16,5a *Salmonella enteritidis* dagokio (**OILASKOAK** eragin ditu kasuen %81a eta %80eko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria) eta %5,5a *Salmonella typhimurium-i*. Honen kasuan bai indiolarra bai oilaskoa izan dira kasu denen errudun.

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, *Listeria monocytogenes*ak jakinarazpenen %14,5a eragin ditu, esne gordinaz egindako **GAZTAK** %34an inplikaturik egonda eta **Europa** jatorria izanik ia %100ean.

Fitosanitarioen eta sendagaien hondakinei dagokienez, sendagaien hondakinen jakinarazpenak anekdotikoak izan dira, eta **FITOSANITARIOENAK**, berriz, % 94,5. Hondakin anitzeko produktuak (hainbat hondakin lagin berean) izan dira kasuen % 37, elikagairik nabarmendu gabe. Gainera, oraindik ere nabarmentzekoa da **KLORPIRIFOS**en presentzia, European debekatuta dagoen plagizida, jakinarazpenen % 26an. Inplikaturako produktu gehienak **ZITRIKOAK** izan dira (mandarinak, limoiak eta laranja), % 52rekin. Horien jatorria **TURKIA** izan da kasuen % 52an eta **EGIPTO** % 39an.

Sarearen bidez jakinarazitako iruzur guztietatik, iruzurren % 44,5 **debekatutako substantziengatik** edo hainbat elikagaitan baimendu gabeko osagai berriengatik izan dira. Nabarmentzekoa da **ELIKADURA-OSAGARRIAK**, kasuen % 73rekin, online saldutakoak edo AEBetatik etorritakoak. AEBen % 37. Bestalde, horien % 26 **ETIKETETAN ALERGENOAK EZ AITORTZEARI** dagozkie.

